

# Itz bikoitzak darakuskuezan

## euskal-izpiakeraren arau batzuk

Euskeraren izpiakerari buruz, aspaldian ainbat lan eder' egin dira; baña sail au osoro aztertu ta ondo ezagutu orduko, oraindik euskalariak ekiñaldi garatzak egin bear' izango dabez. Gure izkuntza onen izpiakera osoa ezagutu ta irakasteko asmoz lan-egin daben euskaltzaleak, benetan txalogari dira: gauza ezkuturik asko era-kutsi dauskuez, eta onako lanetara zale diranai, bidea idegi dautse; baña izpiakera osoa noz-edo-bein ezagutu nai ba-dogu, gai bereziak artu ta atalka lan-egin bear' dogula deritxat. Gero, adimen zolia ta onetarako asti ta gogoa daukazanen batek, lan berezi guztioi ikasi ta izpiakera osoa azaldu dagikeantzat, orain berarizko lanok egitea ondo baño obeto litzate.

Beste enparauak alde batera itxirik, txosten onetarako iru igidin autu dodaz: «d — g — r». Iru igidin oneik itz bikoitzetan artu daroezan aldakuntzak, guztien artean ezaunenak dira, ta euskalari geyenak aitatu dabez; baña aldakuntza oneitzaz orain arte esan ez dan zertxubaist esan daikedala dirudit, eta neure gogora etori yatan ori zuzen ala oker dagoan, nik baño geyago dakian norbaitek ikusi, aztertu ta erabagi dagian, neure eretxia azaltzera noa.

### I

Esango dodana edonoentzat argiago izan dadin, autu dodazan gayak bana-banan eta urengorik-urengora azalduko dodaz. Eta lenengo, aitaturiko iru igidin orein aldakuntzak itz bikoitzetan; baña *itzaren bigaren atala gediñez asten danean*.

---

(I) Lan onetan darabilkedazan itz bariak, emen jaráyan azalduko ditut: Izpiakera = Fonética; gedin = vocal; igidin = consonante; abots = sonido, voz; aboskin = órgano de la voz; iku'r = signo; izki = letra uldu = suprimir; ulketa = supresión.

Idazle batzuk aspaldi onetan darabilez eta gaur-egunean askorentzat itz ezaunak diralako, ontzat artu ditut.

Lenengo atalaren azken-izki gelditzen direanean, *d — beti t — egiten da: g — be geyenez bai; r — biguna. sari l — .D— ta t— abots alkarkideak mingain—agiñetatiko abotsak dira: d—biguna, t—gogora.* Abots biguna bere kide dan abots gogorera itzultzea, edozein izkuntzetan sari jazo oi da—ta, euskeran be beste orenbeste agitzea ez da arigari; baña *g*—berez eztari aosa paitiko abotsa izanik, *d*—bailitzan, agiñetatiko abots gogorera itzultzea, ziñez gauza bakana, izkuntzetan askozaz be gitxiago ikusten dogun aldakuntza da. *R*— biguna ta *l*— mingañetiko abotsak dira: *r*—dardaraduna, *l*— ainbakoa ta min—uyakin egiten dogun abotsa; baña abots bi oneitan lenen mingaña darabilgu—ta, bata bestera aldatzea ez da arigari.

\*\*\*

Gediña ulduaz azken—izkitzat gelditzen danean, *d*- beti *t*—egiten dala esan dot Ona emen ori on egiten daben itz bikoitzak.

*Ard(a + alde = artalde; + antzu = artantzua: + azi = artazi (artezi, artesi); + aiztur = artaiztura: + eli = arteli: + ezne = artezne: + ile = artile (artile); + ule = artule: + egi = artegi, baldin itz onen atzizkia—egi ba—da, izan daiteken lez*

Urengo doazan itzen lenengo atala «*burdi(i)*» ren aldakuntza da: burtardatz, burtaker, burtalbo, burtarasa (burtaresa), burtaga, burtarai (burterai) burtasto, burteda (burtede), burtegun (burtigun), burterala, burteresto (burterestu) burtesi, burtesto, burtetxe burtetza, burtirizko, burtoe, burtol, burtoratz, burtorazi

«*Gurdi*» ren aldakuntzak bardiñak dira: gurtardatz, gurtaker, gurtaga, gurtetza, gurtede, gurtesi gurtetxe gurtigun etc.

*Idi:* itaure, itaureko, itaurlari, itegi, it(h)egun, iteuli, itondo

*Eperdi iperdi naiz ipurdi:* epertargi, ipertargi, ipurtere, ipurteste

*Erdi (irdi):* erthordi, irtiriki, irtidigi, ertuñan

*Andi:* antuste: *zaldi:* zaltuts

*Senide:* senitarre, senitarkeko, senitezkontza, senitasun

*Iñude (unide):* iñutaur; iñutume, unitauride.

\*\*\*

*G*— be *t*— izatera itzuli oi da sari-sari. Ona emen.

*Arg(i:* artizar, arturatu, arturatze

*Beg(i:* betagin, betargi, betarте, betarо, betau'reko, betazpi, betazain, betazal, beteratzun, beteri, beteritsu, bete're, betertz, betezkel (betexkel) betezpal, betikara, bethika'rtze betila, betile, betilun, betintza, bethireki (bethirekian), bethirin, betizu (betuxu, betuxo) betondo, betondoko, betoker, betortz, betosko, betoskol, betule, betulun, bethurusta.

*Arag(i:* aratardi, arategun, aratepa'le, arategi, aratuzte.

*Og(i:* otordu, otorde, otamen, ota're, otare, otil, otondo.

*Zaragi (zagi):* zaratazal, zatazal, zatondo.

*Zogi (zoi):* zotal, zotaro, zotaska, zotaskazulo, zotazal, zoterdi, zotondoko.

*Sagu:* satandre, satitsu (satitzak, Zabala.) sator, saturdin, satutsu.

\*\*\*

R- (biguna) l- egiten dala dar'ayen itz bikoitz oneik darakuse.

*Gari:* galandi (galaundi) galapari, gala're galauts, galaza, galazi, galereite, galerne, galeper' galebaki, galebate, galepala (galepale) galebakitzale, galondo, galondar, galoratz, galots. Bazkari + ondo = bazkalondo: apari + oste = apaloste: ari + ondo = alondo eri + eztun = eleztun (elaztun).

\*\*\*

Aldakuntza oneik zegaitik egin ete-dira? Burd-agá, beg-ule, gar-ondo ta abar abots bigun eta leunak, esan-erezak eta entzun-gozoak ez diralako izan ete-da? Ezetz dirudit. Itz oreik, euren lenengo atalaren azken-igidiñak artu dauan aldakuntza barik, aldakuntza orekin baizen bigun, gozo ta eztia direala deritxat. Burtaga naiz burdaga, betule naiz begule, galondo naiz garondo abots ogutz-erezak eta belarietarako ehti-gozak dira. Aldatze ori *ȝ*zegaitik egin ete-da, ba?

Eronkari ta Zubero aldeko itzen batzuetan-edo izan ezik. -d-euskel-itzen azken-igidiña iñoz be ez da izaten: -g- nik dakidala. iñon bez eta iñoz bez: -r- biguna be guztiz itz gitxitan. Oar au gogoan eukiteko da.

Euskaldunak, lenengotan, itz biak osorik, bata-bestearren jarai esaten ebezala dirudit: burdi-agá, begi-ule, gari- ondo ta abar; baña gero, erabiliaz eta bizkorago esatearen, lenengo atalari bere azken gediña kendu eutsen. Gedimori kendu aren, alkaren jarai iñoezan

abots o'reik itz bi zirala ondo ekien, eta atal bakoitzaren ezauera osoz itz-egiten ebelako, lenengo atal ori, berez eta zer egiten eben jakiteko buru-auste ba'rik, euskerak eskatzen eban amayerea emon eutsela dirudi. Er'onkarin-edo izan ezik (eta an be -d-, -r-, ala besterik dan ziur ez dakigu) euskal-itzen amayan -d- rik ez dator: -t, ostera, saritan: augaitik euskaldunak, euren aboskiñen azturari jaraituaz beste barik, azken gediña kendu ezkero, gelditzen ziran -d oro -t izatera itzuli ebezan. -G azken igidiña bein be ez dalako, nai ta ez aldatu bear' zan; baña -d-, ren bideari jaraituaz, geyenez -t zegaitik, egin dan ez dakit eta ezin esan negi. Abotsak, eurenez alkarkidea bilatzen dabe-ta, -t baño -k egokiago, arirago etoriko zala dirudi; baña aurerago aitatu dodan itz-zerenda luze o'rek, geyenez -t egin dala argiro darakus. Oraitzik be iñoz -k izatera aldatu da: begi + oki'k bekoki egin dau ta ez betoki: ogi + ondo'k otondo'ez gañera, okondo be bai.

R biguna be azken igidiña itz gitxitan izan oida; -l, askozaz be geyagotan; augaitik, itzak amaitzeko euken oitura ori jaraituaz beste barik, azken gediña ulduaz gelditzen ziran -r asko, -l egin dabez euskaldunak.

Gediñaren ulketa barik, berez azken igidin izan ezkero, batzuetan aldatu da; beste batzuetan, ez. Esaterako: ur + untzi = uluntzi; baña urontzi, urondo, urondár, urolde, etc.: zur +aritz = zularitz: zur + aga = zulaga; baña zuraritz, zuraje, zurauts etc. Itzaren erdian saritan -r bigun onen ordez -g dakusgu: ugaondo ugabere, ugadera, ugaldari, ugalaran, ugaran, ugalte, ugate, ugastegi==zugaritz (zugaitz) zugarotz, zugirin etc. Atal biak itz bat izatera eldu-ta gero egindako aldakuntzak dirudie.

## II

*Iru izki onein aldakuntzak itz bikoitzaren bigaren atala igidiñez asten danean.*

Lenengo atalaren azken-gediña ulduaz, igidin bi aurrez-aur gelditzen dira ta alkar' joten dabe. Batzuetan igidin biok alkarekin egokiro batzen dira: beste batzuetan ezin alkartu daitekez. Iazoera bakoitzak bere izpiakera berezia dauko.

Abots baka' bat adierazteko, iku' bikoitz batzuk darabilguz: ts —tz. Itzaren bigaren atala s- naiz z- rekin asi ba-dadi, -d ta-g,

lenangoaren azken igidin oneik, aurerago aitatu ta azaldu dodan aldakuntza berbera egiten dabe: biak. -t izatera itzultzen dira, ta aurez-aur daukezan beste oñekin alkarturik, abots bakarra adierazten dauan iku'r bikoitz ori egin daroe. (1).

\*\*\*

Ona emen: Ard(i + zain = artzain: + zikin = artzikin: burd(i + zain = burtzain: + zeil = burtzeil: + zil = burtzil (gurtzil): id(i + zain = itzain: zald(i + zain = zaltzain: erd(i + zaro = ertzaro: phild(a + zar = philtzar: Iñude + sein = iñutsein

\*\*\*

Beg(i + sein = betsein: og(i + sein = otsein: og(i + seme = ptseme: gog(o + seme = gotseme. (2).

Beg(i + zulo = betzulo: + zain = betzain: + zinte = betzinte (bezinta) + zurda = betzurda: og(i + zara = otzara.

\*\*\*

R- naiz aldatu naiz ez aldatu, abots bateko iku'r bikoitza egiteko eran beste igidiñez ezin alkartu ta batu daiteke: baña ori ta guzti be, len aitatu dodan aldakuntza berbera dagi: bigañen atala gediñez naiz igediñez asi, aldakuntza bardiña egiten dauala esan nai dot Ona emen adibideak.

*Gari:* galgarau, galgori, galbae, galbe, galbelar (galbedar) galbeko, galbera, galbizar, galbota (galbote) galbotxi, galburu, galburuxka, galjorai, galjotaile, galjote.

Ari + gai = algai, algain, algaindu (algandu) albaño, albiñu:

(I) Zetan esan hez, iku'r baño abotsa lenago da; baña iku'ren bidez abotsen alkarr jote ori argiroago ager dadin, arau ori atzekoz-aure ipiñi dot.

(2) Gotseme ta gatseme erabilten dira. Gatseme au (u)gatz + seme dala-ta, aitaturiko beste «gotseme» ori be «gatseme»-ren aldakuntza baño besterik ez dala norbaitek uste izan daike.—Izan daiteke; baña ezetz terik ez dala norbaitek uste izan daike.—Izan daiteke; baña ezetz dirudit. Itz eratori ta bikoitzetan, -o-ren ordez -a- sarí dakusgu: basabide, basabe, basapizti, etc: -a- ren ordez, -o- bein bez. «Gotseme» ori. gog(o) + seme izan ezkerro, izpiakerera-lege au betetan da ta bere iku'penabe egoki-egokia da: augaitik gotseme ori gatseme-ren aldakuntza dala, geyagoko barik ezin siñestu negi.

eri + gofi = elgori: zamari + dun = zamaldun: ugari + tu = ugaldo: joare + dun = joaldun.

R-gogóra azken-izkia euskal-itx askotan dala edonok daki: augaitik-edo, itz bikoitzetan lenengo atalaren amai izan aren, oso gitxitan aldatzen da: éri + goyen = érgoyen: éri + báren = érbáren. Iñoz be ez dala aldatzen esateko nengoan: baña «Euskal-riaren alde»n irakuri dodanez, Ormaiztegi'n «elgoen, elbáren esaten da-ta, gitxitan baño ezpa-da be, aldatzen dala autortu bear.

### III

Bigáren atalaren lenengo igidiñaz, *abots bateko iku'r bikoitza* egiteko eran ezin batu ta alkaítu ba-dira, -d ta-g uldurik, bigáren ataleko igidin ori berari dagokion gogorera aldatu oi da.

Burd(i + bide = burpide (gurpide) gurd(i + begi = gurpegi burdi + bil? = burpil (gurpil, kurpil) id(i + buztari = ipuztari (ipuzteri) ard(i + gorotz = arkorotz: + gazte = arkazte: erd(i + gordin = elkordin.

Lenengo atalaren azken-abotsa berez -t danean be orixe jazo oi da: bat + bez = bapez, bapat, bapatean, bapaka, bapana, bape, bapigakatu: zenbat + garéen = zenbakaren, ogeta-bakaren, gogakari, lokari, palakiñen (palat(u) + giñen. Oraitzik be aurérago da-goan igidiñak biguna eskatu ba-dagi, bigun gelditu oi da: er(i + góri = elgori: zald(i + dun = zaldun, eta ez zaltun.

\*\*\*

Beg(i + buru = bepuru: + belar = bepelar: + bera = bepera: + bako = bepako: + bakotx = bepakotx: og(i + bil = opil.

Zog(i + bakoitz = zopakoitz: + báren = zopáren: + béri = zoperi: + bisaír = zopizar: + buru = zopuru: + bustan = zo-pustan.

Beg(i + gan = bekan: + gain = bekain: + gane = bekane: + gaitz = bekaitz: zog(i + gain = zokain: og(i + gin = okin arag(i + gin = arakin: eg(u + gaitz = ekaitz: arag(i + dun aratun.

Idatzi dodan otek, auxe darakus: abots bat egiteko eran alkaítu ta batu ezin daitekezan igidiñak alkar jo ba-dagie, geyenez lenengoa uldu ta bigarena gogortu egiten dira. Lenengo atalaren azken-

igidiña -n danean be, orixe jazo oi da: jakin + gura = jakikura: izan + gura = izakura: jan + giro = jakiro: etzan + gura = etzakura. Izan + bide = izapide: ezaun + bide = ezaupide: jan + bitarre = japatarte, igaran + bide = igarapide, iragapide: ehu-pazter.

N + d, Bizkayan beintzat, -t egiten dira: jakin + dun = jakitun: + duri = jakituri: jan + dun = jatun.

Baña lenengo atalaren azken-igidiña gogoŕa ta bigarenaren lenengoa biguna izan ezkerro, bigun au ulda-ta, gogoŕa gelditu doa. Esaterako: eki + gan = ekan: + gain ekain: eki + gan + il = ekanil: eruki + gari = erukarí (urukarí)

## IV

-D- izan ezik, aitaturiko beste igidiñok, itz bikoitzen erdian sari geikiak (epentéticas) izaten dira. Ona emen:

-G-, arto + ol = artogol: talo + ol = talogol: su + ate = su-gate (sugete) sugatze: su + arotz = sugarotz.

K-, emakume, usakume, erlekume, erlakume, astakume, aunz-kume, arkume, sukalue.

-T-, axur-t-iñe, ber-t-ikusi, buru-t-aldi, ego-t-aldi, egos-tarin, jagi-t-arin, jayo-t-egun, jayo-t-eri, jayo-t-etxe, jai-t-egun, jayo-t-era?, jaitera, ja-t-arbi, ja-t-aure ja-t-oste jos-t oratz, su-t-argi, su-t-alde, izuz-t-egun, ikuz-t-ari, ur-t-ontzi, iriz-t-ontzi, etc.

-T- onek, *metátesis* deritxogunaren bidez bere tokia saritxu tan aldatzen dau esaterako: austontzi, austarri, aztandel, aztaparí, biozter, bioztere (biotzere) bioztoi, biozteri: ebastale, eraustale, iraiztale, moistale (motzale) nastale, oraztontzi, ostadar, ostargi, ostots, zoroztale.

-D- ta-g-ek be *metátesis* ori egin daroe: edaran = eradan: edarale = eradale: igaran = iragan: igaro = irago, etc.

R- be atal biren erdian geikia sari izan oi da: itureun, lareun, surtan (surten) surtara (surtera), seirak, zazpirak, etc.

Gai bakoitzean ainbat adibide ipiñi dodaz; baña beren-beregi oretan asi ta ekin ezkerro, askozaz geyago be idoro lediz: Geyago batu ezkerro, bear ba-da arauen bat zetan-edo-atan aldatu eragingo leuskigue,edo or aitatu ez dodan bariren bat erakutsi.